

L'ATALANTE

CINÉMA VO · BISTRO · EXPO

ZUKUGAILUA

• LA CENTRIFUGEUSE •

HEMENDIK #4

Sortzen den zinema

EGONALDI LABURRA

PROIEKTUAREN GARAPENA + PITCHING SAIOA

2024KO APIRILAREN 30ETIK MAITZAREN 2RA

Rencontres

sur

#20 les docks

Docketan topa

HEMENDIK #4

Fikziozko film edo dokumental proiektu bat duzu?

Film laburra ala luzea?

Ekoiztetxe bat xerkatzeko edo ideiak garatzeko eskukaldi bat nahi?

Hemendik egonaldiak zinema sorkuntza gaztea garatu nahi du Akitaniako, Euskal eta Nafarroako lurraldeetan, mugatik haratago garatuko diren proiektuen bidez. Zatozte zuen proiektuak lantzerantz eta aurkez ezazue profesionalen aitzinean 2024ko Rencontres sur les docks zinema festibaleko pitching saioan!

2024ko Rencontres sur les docks festibalaren kari, Zukugailuak eta L'Atalante zinema gelak antolatutako Hemendik egonaldia dugu aurten ere.

Zukugailuak eta Baionako L'Atalante zinema gelak zinemagile berriei zuzenduriko egonaldi laburra antolatuko dute. Hiru egunez, 2024ko apirilaren 30etik maiatzaren 2ra, hautagaiek haien proposamenak garatuko dituzte zinemagintzako profesionalen laguntzarekin. Prozesua burutzean, lurraldeko (Nafarroa, Euskadi eta Akitaniako) ekoizleen aitzinean aurkeztuko dituzte proiektuak, maiatzaren 2an, ostegunez, pitching saio batean.

Film luze eta laburrak, dokumental zein fikzioak onartuko dira.

Dosierra euskaraz, frantsesez edo gazteleraz idatz daiteke. Pitching-a ere hiru hizkuntzetan egiteko aukera ukanen duzue.

Informazio gehiago eskuratzeko edota dosierra bidaltzeko: koord@zukugailua.eus

Bidali zure dosierra osaturik martxoaren 3a aitzin, gauerdia baino lehen, emailez, pdf bakar batean (gehienik 25Mb-koa) helbide honetara: koord@zukugailua.eus

L'ATALANTE
CINÉMA VO • BISTRO • EXPO

ZUKUGAILUA
• LA CENTRIFUGEUSE •



ARAUDIA

Aurkezten diren proiektuek Euroeskualdeko lurraldearekin lotura ukan behar dute (gaia, grabaketa lekua, autorea lurraldean bizi da edo lurraldekoa da,...).

Autore batek bi proiektu aurkezten ahal ditu gehienez.

Bidali zure dosierra osaturik, emailez, pdf bakar batean (gehienez 25Mb-koa) helbide honetara:

koord@zukugailua.eus

Dosierra ondoko elementuekin osatuta egon behar da:

- Egilearen biografia eta harremanetarako informazioak (email eta telefono zenbakia) (gehienez 650 karaktere)
- Laburpen bat (gehienez 400 karaktere)
- Sinopsi garatua (gehienez 4000 karaktere)
- Intentzio nota (gehienez 3000 karaktere)
- Motibazio gutuna azaltzeko zergatik egonaldian parte hartu nahi den, zer igurikatzen den eta zein diren beharrak
- Erreferentzia bisualak
- Orain arte eginiko filmak ikusteko estekak (egonen balira).

OHARRA: EMANDAKO KARAKTERE MUGAK ESPAZIOAK KONTUTAN HARTZEN DITU.

Dosierra euskaraz, frantsesez edo gazteleraz idatz daiteke.

Zure burua aurkezteko baitezpadakoa da egonaldiaren egunetan libro izatea, hau da, 2024ko apirilaren 30etik maiatzaren 2ra.

Dosierra 2024ko martxoaren 3a aitzin bidali beharko da, gauerdia baino lehen.

Zinema arloko profesionalek osaturiko batzorde batek irakurri eta aztertuko ditu hautagaitzak. Arreta berezia emanen zaie irizpide hauei: esperientziari (loratzeari balioa emanen zaio), generoari (parekotasuna helburu) eta kokapenari (Iparraldean sorkuntza garatzea). Sei eta zortzi proiekturen artean hautatuko dira.

Hiru eguneko egonaldiaren ondotik, bi proiektuk 1000 euroko laguntza jasoko dute, KANALDUDE SARIAREN bitartez.

EGUTEGIA

- **URTARRILAK 29:** deialdiaren irekiera
- **MARTXOAK 3:** deialdiaren bukaera
- **MARTXOAK 4-31:** dosierren irakurketa
- **MARTXOAK 31:** deialdiaren ebazpena
- **APIRILAK 30 ETIK MAIATZAK 2RA** (Rencontres sur les docks festibalaren kari) : tutoreekin eta buruz-buruko lan egunak
- **MAIATZAK 2:** pitching saioa eta ekoizleekin topaketak

EGONALDIA NOLA IRAGANEN DA



Egonaldian parte hartuko dutenek pentsio osoa jasoko dute. Baionako L'Atalante zinema gelatik hurbil den ostatalekuan egonen dira (Hostal 20). Lan egunak tutoreek antolatuko dituzte; 9:00etatik 17:00etara bitartean izanen dira. Hamaiketako bat egonen da Korail coworking gunean. (<https://korail-bayonne.fr/>).

Parte hartzaileek Rencontres sur les docks festibaleko proiektioetara eta ekitaldietara joateko paseak ukanen dituzte.

Garraioa antolatzaileen gain izanen da. Aldiz, parte hartzailea bidaiari antolatzeaz arduratuko da.

Proiektuka pertsona batek bakarrik parte hartzen ahalko du egonaldian.

ANTOLAKETA

L'Atalante Baionako zinema gela independentea da. Hiru pantaila, ostatu bat eta hiriruntz idekiak diren espazioei esker, ekintza ugari garatzen ditu bere programazioari balio emateko. Publiko gazteari zuzendutako proiektu ugariak ikasleak, haurrak, nerabeak eta heldu gazteak zinemari sentsibilizatzea ahalbidetzen dute, filmen aniztasuna, pizten duten kuriositatea eta haien baitan dituzten altxorak erakutsiz. Arreta berezia ematen dio mugaz gaindiko harremanen garapenari, lurraldean baliabideak eta emulazioa azaldu daitezten. *Rencontres sur les docks* L'Atalante zinema gelaren urteko festibala da. **Zukugailua** elkartearen helburua, euskal zinema eta ikus-entzunezko sorkuntza sostengatzea eta bultzatzea da. Profesional eta perfil ezberdinak elkartuz (zuzendari, ekoizle, banatzaile, teknikari, zinema gela kudeatzaile...), ahalak plantan eman nahi ditu, euskal zinemaren garatzeko, ekoizteko eta banatzeko bereziki sorkuntza gaztea, lekuko profesionalei formakuntzaren sarbidea erraztuz eta gazteak sorkuntza zinematografikoari sentsibilizatuz.

Bi egitura arteko sinergiak loturak eraikitzeke eta Iparraldeko ikus-entzunezko eta zinemaren sektorea egituratzeko beharrezkoa den emulazioa sortzeko nahikaria erakusten du, Hegoaldean jadanik bizi-bizirik dagoen sektorean integrazio ikuspegitik bakarrik lortuko dena. Horrela ditugu helburu amankomunak finkatuko, artea eta kulturaren ikuspegi independente, kontzientziatu eta anbiziotsu batean oinarritzen direnak.

KOLABORATZAILEAK

Kanaldude
TV7
Zinema zubiak
Korail

PARTAIDEAK

Akitania Berria eskualdea
Euroeskualdea
ALCA
Zineuskadi
Euskararen erakunde publikoa
Eusko Jaurlaritza
Nafarroako Gobernua
Pirinio Atlantikoetako departamendua
Euskal hirigune elkargoa
Euskal Kultur Erakundea

